

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

6485

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan «Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailatza eta mikroenpresak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 21eko bileran hartutako erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan «Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailatza eta mikroenpresak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia onartu du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua o) letran xedatutakoaren arabera, organismo autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Azaldutakoagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitara ematea, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan «Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailatza eta mikroenpresak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 21eko batzarrean hartutako erabakiaren bidez onetsitakoa. Ebazpen honen eranskin gisa jaso da erabaki hori.

Bigarrena.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak laguntza-deialdia onartzeko hartu duen erabakiak ondorioak izango ditu ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.— Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 21a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN «BERROREKA ETA EKITATERAKO LURRALDE-PROIEKTU BERRIAK. EKINTZAILETZA ETA MIKROENPRESAK» IZENENKO PROGRAMA FINANTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, EUROPAR BATASUNAREN NEXTGENERATIONEU FUNTSAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN.

Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana Europar Batasunean sustatutako tresna bat da, COVID-19aren pandemiaren inpaktuak murrizteko eta gizartea eraldatzeko. Helburutzat du ekoizpen-sarea modernizatzea, «deskarbonizazioa» eta ingurumenarekiko errespetua sustatzea, ikerketarako eta prestakuntzarako egituren eta baliabideen digitalizazioa eta hobekuntza bultzatzea, gizartea prestatuagoa egon dadin pandemia bezalako arazoei aurre egiteko, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritako esparruarekin bat eginda.

Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, «Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak» izeneko VIII. politika bultzatzailean, 23. osagaia sartzen da: «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusiborako politika publiko berriak». Bertan, Espainiako lan-merkatuko egiturazko erronkarik garrantzitsuenak jasotzen dira.

23. osagai horretan proposatutako erreforma eta inbertsioen artean, 4. inbertsioa sartzen da: «Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak», eta, horren barruan, «Ekintzailletza eta mikroenpresak» inbertsio-lerroa dago.

«Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailletza eta mikroenpresak» inbertsio-lerroan ekintzailletza-proiektuak sustatzeko jarduerak sartzen dira, erronka demografikoa jorratu eta ekoizpenaren eraldaketa sustatzeko, batez ere ekonomia berde eta digitala garatze aldera. Lurralde-proiektu berri horien helburua honako hau da: enplegu egonkorra eskaintzen duten eta populazio desberdinen garapen iraunkorrean, aurrerapenean eta aberasgarritasunean laguntzen duten enpresa-proiektuen jarraitutasuna erraztea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio, enplegu-politika aktiboen gaineko bere eginkizunak betetz, inbertsio hori garatzea.

Hartara, dirulaguntzen deialdi honekin, jarduerari eta enpleguari eusteko laguntzak eman nahi dira ingurumenarekiko errespetu gehiago izateko edo digitalizazio altuagoa izateko trantsizioan inbertsioak egin dituzten mikroenpresetan. Hala, dimentsio txikiko enpresen enpleguaren eta jarduera ekonomikoaren jarraitutasuna babesteaz gain –kontuan hartuta mikroenpresak direla beren jarduera garatzen duten biztanleria-guneetan errotze handiena duten enpresa-sareak–, ekoizpen-modu jasangarri eta modernoagoetarako aldaketa sustatzen da.

Dirulaguntzen bidez mikroenpresei eta norbere konturako langileei laguntzea tresna erabilgarria da une kritikoetan horien jarduerari eta enpleguari eusteko, COVID-19aren krisiak eragindako uneetan besteak beste. Horren erakusgarri, norbere konturako langileentzako aparteko laguntzek –Lanbidek 2020. urtean martxan jarritakoek– emaitza ona izan dute. Emandako laguntzen % 83 pandemiaren eragina bereziki jasan zuten sektoreetan eman ziren: txikizkako merkataritzan eta ostalaritzan. Sektore horiek oraindik ere urrun daude pandemia aurreko enplegu-mailak berreskuratzetik.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, organismo autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 21ean

egindako batzarrean, onartu egin du Euskal Autonomia Erkidegoan «Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailletza eta mikroenpresak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

1. artikulua.— Laguntza-deialdiaren xedea.

Deialdi honek Euskal Autonomia Erkidegoan mikroenpresetan eta langile autonomoen artean enpleguari eusteko eta trantsizio ekologiko eta digitalean laguntzeko «Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailletza eta mikroenpresak» izeneko osagaiaren inbertsioa finantzatzeko laguntzak arautu eta oinarriak ezarri nahi ditu, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Dirulaguntzen arloan, bi lerro ezarri dira: bat eraldaketa ekologikorako inbertsioak egin dituzten enpresetan enpleguari eusteko dirulaguntzak emateko, eta, bestea, eraldaketa digitalerako inbertsioak egin dituzten enpresetan enpleguari eusteko dirulaguntzak emateko.

2. artikulua.— Baliabide ekonomikoak eta finantzaketa.

1.— Deialdi honetan araututako laguntzak emateko baliabide ekonomikoak 10.523.571 eurokoak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren 2022ko ordainketa-kredituaren kargura, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez.

Eman beharreko laguntzen bolumena, guztira, ez da izango aipatu zenbatekoa baino altuagoa edo igoeraren ondorioz dagokiona baino altuagoa, baldin eta aurrekontu-aldaketak onartzen badira, indarreko legedian ezarritakoari jarraikiz; zehazki, baldin eta 2022an eta 2023an Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzen badira Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren ondoriozko funts berriak xede bererako, eta horiek, era berean, laguntza horien finantzaketarekin lotutako ordainketa-kreditu berriak sortzen badituzte. Hala gertatzen bada, horren gaineko publizitatea emango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko laneko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta).

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura egiten diren gastu-espedienteen aurretiko izapidetzea araupeetzen duen Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, deialdi honetan iragarritako dirulaguntzen ebazpenak emateko, kreditu egokiak eta behar bestekoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022ko aurrekontu orokorretan.

3.— Baliabide ekonomikoen zenbatekoa dirulaguntzen bi lerro horien artean banatuko da:

a) % 50, hots, 5.261.786 euro, trantsizio ekologikorako inbertsioa egin duten entitateetan enpleguari eusteko dirulaguntzak emateko.

b) % 50, hots, 5.261.785 euro, trantsizio digitalerako inbertsioa egin duten entitateetan enpleguari eusteko dirulaguntzak emateko.

Baldin eta a) edo b) lerroan eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoak ez badu esleitutako gehieneko aurrekontua gainditzen, soberan dagoen zenbatekoa beste lerro bat finantzatzeko erabili ahal izango da, horietako bakoitzera bideratutako baliabide ekonomikoen % 50era arte, gehienez.

3. artikulua.— Dirulaguntzaren onuradunak.

1.— Dirulaguntzaren onuradun izan ahalko dira mikroenpresak, beren forma juridikoa edozein izanda ere, barnean direla ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta kooperatibak eta lan-sozietateak eta beren konturako langileak edo autonomoak (enpresari indibidualak) ere, betiere beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen badute eta gutxienez lantoki bat bertan badute, soldatapeko hamar langile edo, hala badagokio, bazkide langile edo lan-bazkide baino gutxiago badituzte, eta beren negozio-bolumena ez bada bi milioi eurotik gorakoa.

2.— Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izateko, aurreko atalean zerrendatutako mikroenpresek eta pertsona autonomoek berariaz egiaztatu beharko dute trantsizio ekologiko edo digitalerako inbertsioak egin eta ordaindu dituztela, 2021eko urtarrilaren 1etik dirulaguntzaren eskaria aurkezten den data arte, honako kontzeptu hauetakoren batean:

A) Trantsizio ekologikorako inbertsioen kasuan:

- a) Aurrezte edo eraginkortasun energetikorako neurriak ezartzeko obrak eta instalazioak.
- b) Energia ez-kutsagarri eta berriztagarrien instalazioak.
- c) Energetikoki eraginkorra den ekipamendua, jarduerara bideratua, betiere eraginkortasun energetiko altuko etiketa energetikoa badu (Ahhh, Ahh eta Ah, edo baliokideak).
- d) Klimatizazio-ekipoak, betiere eraginkortasun energetiko altuko etiketa energetikoa badute (Ahhh, Ahh eta Ah, edo baliokideak).
- e) Ingurumen-ziurtagiriak (EMAS, ISO14001, ISO 14006, UNE 150301, etiketa berdea eta abar), hemen sartzen delarik egindako ezarpenaren inbertsioa.
- f) Garraio-elementu elektriko edo hibrido entxufagarriak, enpresariaren edo profesionalaren jarduerarekin zuzenean eta eskusiboki lotuta daudenak; karga elektrikoko puntuak.

Ondorio horietarako, hauek bakarrik egongo dira zuzenean eta eskusiboki jarduerari lotuta:

- Salgaiak garraiatzeko erabilitako ibilgailu mistoak.
- Kontraprestazio bidez bidaiariak garraiatzeko zerbitzuak ematerakoan erabiltzen direnak.
- Kontraprestazio bidez gidariei edo pilotuei irakasteko zerbitzuak ematerakoan erabiltzen direnak.
- Probak, saiakuntzak eta erakustaldiak egiterakoan edo salmentak sustatzerakoan ekoizleek erabiltzen dituztenak.
- Merkataritza-agenteen edo ordezkarien lanbideari lotutako joan-etorrietan erabiltzen direnak.
- Zaintza-zerbitzuetan erabiltzen direnak.

g) Ekonomia zirkularreko irtenbideak, enpresaren jasangarritasunean aurrera egiteko: orokorrean kontsumoak, eta, zehazki, lehengaiak eta energia murrizten dituztenak; hondakinen sorrera murrizten dutenak; berrerabilpena areagotzen dutenak; uraren erabileraren eraginkortasuna hobetzen dutenak edo berotegi-efektuko gas-isuriak murrizten dituztenak. Produktuetan edo biltzeko prozesuan hondakinen sorrera ezabatu edo murrizten duen diseinua ahalbidetzen duten irtenbideak.

h) Biodibertsitatea berrezartzeko proiektuen ezarpena, jarduera ekonomikoarekin lotutakoa.

B) Trantsizio digitalerako inbertsioen kasuan:

a) Ekipo informatikoak, aplikazio informatikoak eta softwarea.

b) Haririk gabeko konektagarritasuna hedatu edo hobetzeko inbertsioak.

c) Irtenbide teknologikoen ezarpena, enpresaren digitalizazio-prozesuan aurrera egiteko: hodeiko biltegia, kobrantza eta ordainketa segurua, negozioaren kudeaketa integrala (bezeroak, hornitzaileak eta abar), Big Data prozesuetan oinarritutako irtenbide aurreratuak, bezeroaren esperientziako irtenbide teknologikoak (errealitate handitua, errealitate birtuala, errealitate murgildua, eta abar), fakturazio elektronikoko irtenbideak (TicketBAI-TBAI sistemarako fakturazio-softwarea barne), bezeroarentzako zerbitzuen kudeaketa, salmenta-puntuaren terminalak, produktuen kodetze eta irakurketa optikorako sistemak, eta abar.

d) Merkaturatze-sistemak martxan jarri edo hobetzeko sorrera, garapena eta ezarpena (web-guneen garapena, online salmenta, ecommerce, scommerce, mcommerce eta antzekoak).

Dirulaguntza eskuratzeko, egindako inbertsioek gutxienez 600 euroko zenbatekoa eduki behar dute, BEZa kanpo, dirulaguntzen bi lerroetako batean, izan trantsizio ekologikorako inbertsioetan, izan trantsizio digitalerako inbertsioetan. Gutxieneko zenbateko horretara iristeko, lerro bereko inbertsio-kontzeptu desberdinen kostuak batu ahal izango dira.

Enpresari indibidual edo enpresa bakoitzak dirulaguntza bakarraren onuradun izan ahalko du, behin bakarrik, dirulaguntzen bi lerroetako batean.

3.– Era berean, pertsona eta enpresa onuradunek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen. Hala ere, eskatzaileak berariaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

c) Ez izatea zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zehapenik, ez eta horretarako desgaitasunak dakarren legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, edo Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarritako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta zehazki 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez badu egiaztatzen 3. apartatuan xedatutako eskakizunen bat, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez frogatu beharko da; adierazpen hori eskabide-orrian jasota dago.

4.– Enpresa eta pertsona onuradunek «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala erabat betetzen dituztela bermatu beharko dute, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzei buruzko Kontseiluaren

2021eko uztailaren 13ko exekuzio-erabakian (Council Implementing Decision-CID) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, baita hura garatzeko araudian ezarritakoarekin bat ere. Proiektuak diseinatu eta gauzatzeko fase guztietan bete beharko da hori, modu indibidualean, jarduketa bakoitzerako.

Ondorio horietarako, dirulaguntza-eskabidearekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute I. eranskineko ereduan. Helbide honetan eskuratu daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/1210801>

5.– Era berean, pertsona eta enpresa onuradunek hitz eman beharko dute beharrezkoak diren eskubideak eta sarbideak emango dituztela, bermatzeko Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Kontuen Europako Auzitegiak, Fiskaltza Europarrak eta gaiaren gaineko eskumena duten agintaritza nazionalak beren kontrol-eskumenak betetzen dituztela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduan (EB, Eurotom) («Erregelamendu Finantzarioa») 129.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Konpromiso hori dirulaguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute, II. eranskineko ereduan. Helbide honetan eskuratu daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/1210801>

6.– Ezin izango dira dirulaguntza horien onuradun izan sektore publikoa osatzen duten entitateak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2. artikuluan arabera.

7.– Era berean, ezingo dute deialdi honetan araututako laguntzarik jaso Suspertze, Transformatzio eta Erresilientzia Planaren finantzaketatik kanpo dauden jarduera hauek garatzen dituzten enpresek:

1.a– Erregai fosilekin lotutakoak (geroagoko erabilera barne).

2.a– Isuri-eskubideen merkataritza-araubidearen (ETS) esparruko jarduerak, berotegi-efektuko gasen isuri proiektatuak doako esleipenerako ezarritako erreferentzia-balioak baino nabarmen txikiagoak ez badira.

3.a– Hondakinen zabortegeien instalazioetan, tratamendu biologiko mekanikorako (MBT) instalazioetan edo hondakinen tratamendurako erraustegietan egindakoak.

4.a– Hondakinen epe luzerako ezabaketak ingurumenean epe luzera kalteak eragin ditzaketen jarduerak (adibidez, hondakin nuklearrak).

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen bi lerroen helburua enplegua mantentzea da; hau da, dirulaguntza eskatzeko unean enpresa onuradunek kontratatuta zituzten inoren konturako langile kopuruari eustea, sei hilabetez, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Beren konturako langileen kasuan, soldatapeko langilerik ez badute, eta kooperatiben eta lan-sozietateen kasuan, aldi horretan langile autonomoaren edo bazkide-langileen edo lan-bazkideen izaera mantendu beharko dute, hurrenez hurren, bai eta jarduera bera ere.

Ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek aldi horretan zehar bertan lan egiten duten bazkideen egoerari eutsi beharko diote, eta, hala badagokio, kontratatuta dauden inoren konturako langileen enpleguari ere.

2.– Enpleguari eusteko baldintza hori ez da urratutzat joko, baldin eta arrazoi objektiboen edo kaleratzearen zioz lan-harremanen bat iraungitze bada, bidezkotzat jota (erretiroa, dimisioa, heriotza, lanerako ezintasun iraunkorra, absolutua edo ezintasun handia), eta aldi baterako kontratuen kasuan, prestakuntzakoak barne, baldin eta kontratua iraungitzen bada hitzartutako lan-denbora igaro delako edo haren xedea osatzen zuen obra edo zerbitzua burutu delako, eta, langile finko ez jarraituen kasuan, jardueraren denboraldia amaitu edo eten delako.

5. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Emango diren dirulaguntzak 5.000 eurokoak izango dira, mikroenpresa edo enpresari autonomo onuradun bakoitzeko.

6. artikulua.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Dirulaguntza-eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dira: <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa>. Hara iristeko esteka bat egongo da Lanbideren web-orrian.

Izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak dituen administrazio-prozeduraren informazio-fitxa <https://www.euskadi.eus/servicios/1210801> helbidean dago, eta fitxa horren bitartez sartu ahal da eskabidea egiteko inprimakian.

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

2.– Eskabideak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 14tik 2023ko maiatzaren 31ra izango da:

3.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Enpresaren eskriturak edo eraketa-agiria, eta ondorengo aldaketak.

b) Eskabidearen sinatzaileak pertsona juridiko eskatzailearen izenean duen legezko ordezkaritza egiaztatzeko dokumentua, baldin eta inskribatuta ez badago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoa.

c) Trantsizio ekologiko edo digitalerako inbertsioetan sartutako aktiboen ordainketaren egiaztagirak edo ordainagirak, 3.2 artikuluan aurreikusitakoak.

Ordainagirak onartzeko, diruz lagun daitezkeen aktiboen deskribapena argi eta garbi identifikatuta egon beharko da; ez da kodetutako kontzepturik onartuko.

Ordainketen justifikazioan, ordainketaren hartzailea eta igorlea argi eta garbi identifikatuta egon beharko dira.

d) Enpresa ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, dagokion epigrafea adierazita.

e) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren txostena (RED sistemaren bidez eskuratua), eskariaren datan Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako lantoki guztietan enpresako plantillan dauden langileen kopuruari buruzkoa.

Plantillan langilerik ez duten langile autonomoen kasuan, Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian, norberaren kontura lan egiten dutenei dagokien araubide berezian, edo kasuan kasuko mutualitate profesionalean alta eman izanaren egiaztagiria.

Bazkideak beren konturako langileekin parekatzea erabaki duten lan-sozietateek eta koope-
ratibek enpresan alta emanda dauden bazkide langileen edo lan-bazkideen zerrenda aurkeztu beharko dute, bai eta Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian, dagokion norberaren konturako araubide berezian edo dagokion mutualitate profesionalean alta emanda daudela egiaztatzen duen agiria ere.

Aurreko paragrafoan adierazitako dokumentazio bera aurkeztu beharko dute ondasun-erkide-
goek eta sozietate zibilek, enpresan lan egiten duten bazkideei dagokienez.

f) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) betetzen dela dioen erantzukizunpeko adierazpena, 3.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, II. eranskineko ereduari.

g) 3.5 artikuluan aipatzen diren eskubideak eta sarbideak emateko konpromisoa, II. eranskineko ereduari.

h) Datuen lagapenari eta tratamenduari buruzko adierazpena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan 2.d) eta 3. apartatuetan xedatutakoari dagokionez. III. eranskineko ereduari.

i) Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean ezarritako zeharkako printzipioak bete-
tzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, IV. ereduari.

3. apartatu honetan aipatzen diren ereduak <https://www.euskadi.eus/servicios/1210801> helbi-
dean eskuratu ahal dira.

4.– Eskabideak ez badaude behar bezala beteta, edo ez bada aurreko apartatuan adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu horrekin batera, entitateari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkeztu ditzan. Gainera, jakinaraziko zaio hori egiten ez badu haren eskabideari uko egin diola ulertuko dela, eta Administrazioak eskabide horri buruzko ebazpena eman beharko du espresuki, bai eta jakinarazi ere.

7. artikulua.– Ebazteko eskumena duen organoa, emakida-prozedura, ebazpena, epeak, berraz-
tertze-errekurtsoa eta publikotasuna.

1.– Eskabideak kudeatzeko, izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna Laneratzea Aktiba-
tzeko zuzendaria da.

Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganbera Ofizialak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioaren Ganbera Ofizialek entitate laguntzaile gisa jardungo dute dirulaguntzen kudeaketan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege

Orokorren 12. artikuluan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 52. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2.– Deialdi honetako dirulaguntzak lehiarik gabeko konkurrentzia-prozeduran izapidetuko dira. Horrenbestez, aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira eskabideak, eta hurrenkera horretan emango zaizkie dirulaguntzak deialdiko baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako funtsak amaitu arte.

2.1 artikuluan hasieran aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, edo 2022ko ekitaldian zuzkidura hori handitzearen ondoriozkoa, laguntza berriak emateko prozedura geldiaraziko da, eta prozesua berriz hasiko da hura finantzatzeko aurrekontu-kreditua handitzea ahalbidetuko duten funts berriak jaso ondoren. Baliabide ekonomikoak behin betiko agortzen badira, ebazteke dauden eskabideei ukatu egingo zaizkie dirulaguntzak.

Kasu horretan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpen bidez, EHAA argitaratuko da laguntza berriak emateko prozesua eten egin dela eta, hala halakorik bada, berriz ekin zaiola, dagokion aurrekontu-kredituaren zenbatekoa adierazita. Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak behin betiko agortzen badira, halaxe adieraziko da.

3.– Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten den egunetik aurrera. Epe hori igaro ondoren ebazpen espresurik jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsizat jo ahal izango da.

4.– Ebazpena laguntza ematekoa bada, EBren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan finantzatutakoa dela adieraziko da.

5.– Entitate onuradunek jaso badituzte ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntza batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren edo haren organismo autonomoen eskutik, eta laguntza horien inguruko itzulketa- edo zehapen-prozesuren bat izapidetzen ari bada, prozesu horrek amaituta egon behar du entitate horiei dirulaguntza esleitzeko edo esleitura dutenei dagokiena ordaintzeko.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpenek ez dute amaituko administrazio-bidea, eta haien aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatuta.

7.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta emakida-ebazpenak espresuki eta banaka jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, arau honen babesean emandako dirulaguntzen onuradun diren entitateen zerrenda, eta zer zenbateko jasoko dituzten ere adieraziko da. Halaber, entitate bati emandako dirulaguntza aldatzea erabaki bada, hori ere adieraziko da, eta berariaz aipatuko da EBko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan finantzatua izan dela.

8. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko modua.

1.– Ebazpena eman ondoren, dirulaguntzaren zenbateko osoaren ordainketa egingo da.

Dirulaguntzaren izaera aintzat hartuta, egindako funts-aurrerakinek sortutako finantza-etekinek ez dute handituko emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

2.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, entitate eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta behar du.

Entitatea ez badago erregistratuta, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren hirugarrenen erregistro banku-datuak aldatu nahi baditu, <https://euskadi.eus/hirugarrenak> webgunearen bidez egin beharko du.

9. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea.

1.– Dirulaguntzen entitate onuradunak, dirulaguntzaren xede den jarduera amaitu eta 15 egun balioduneko epean, hau da, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta sei hilabetera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Enpleguari eutsi zaiola egiaztatzeko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak egin-dako eta RED sistemaren bidez lortutako «alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillari buruzko txostena», Euskal Autonomia Erkidegoko lantoki guztietarako eta dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo sei hilabeteak hartzen dituen.

Soldatepeko langilerik ez duten norbere kontuko langileen kasuan, Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian, norberaren kontura lan egiten dutenei dagokien araubide berezian, edo kasuan kasuko mutualitate profesionalean eta ekonomia-jardueren gaineko zergan altan jarraitzen dutela egiaztatzeko agiria.

Bazkideak beren konturako langileekin parekatzea erabaki duten lan-sozietateek eta kooperatibek diruz lagundutako aldia igarotakoan enpresan altan jarraitzen duten bazkide langileen edo lan-bazkideen zerrenda aurkeztu beharko dute, bai eta Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian, dagokion norberaren konturako araubide berezian edo dagokion mutualitate profesionalean altan jarraitzen dutela egiaztatzen duen agiria ere. Dokumentazio bera aurkeztu beharko dute ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, enpresan lan egiten duten bazkideei dagokienez.

Diruz lagundutako sei hilabeteetan enplegu-mailari eutsi ez bazaio 4.2 artikuluan aipatutako arrazoren batengatik, hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

b) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera eta dirulaguntza batzuen zerrenda, bertan zenbatekoa eta jatorria adierazita.

c) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) betetzen dela egiaztatzeko aurrez ikusitako mekanismoak eta printzipio horren ezarpena bermatzeko neurri zuzentzaileak.

2.– Entitate onuradunek hiru urtez gorde beharko dituzte finantzaketari dagozkion frogagiriak eta gainerako agiriak, formatu elektronikoan, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa baita, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamendua-ren (EB, Euratom) («Erregelamendu Finantzarioa») 132. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

3.– Aurreikusitako epean dokumentazioa aurkezten ez bada, itzulketa-prozedura hasiko da, 15. eta 16. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

10. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Entitate onuradunaren betebeharrak izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei

buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 50.2 artikuluan oro har ezarritakoak, deialdi hauetan berariaz aurreikusitakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Behar bezala justifikatzea eskakizunak eta betebeharrak bete dituztela, bai eta laguntza ematea edo laguntzaren onura jasotzea ekarri duen jarduera egin dutela ere.

b) Xede bererako beste administrazio edo enteren baten, publikoa edo pribatua izanda ere, dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat jasoz gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.

c) Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat, objektiboa edo subjektiboa, aldatu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko ente publikoek eta sozietate publikoek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea.

e) Honako hauen egiaztatze-jarduketei baiezkota ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Lan eta Enplegu Saila, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia; bai eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak egin ditzaketenei ere. Era berean, men egin beharko die Estatuaren Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolleko jarduketei eta Kontuen Auzitegiaren legerian aurreikusitakoei, Europako Erkidegoetako Kontuen Auzitegiak eta Batzordeak egin ditzaketenei, bai eta Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF), Auditoretza Bulego Nazionalak eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzak egin ditzaketenei ere.

Halaber, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipen, kontrol eta ebaluazioa egitea, baita, informazioaren eta publikotasunaren arloan, kontrol, egiaztapen, jarraipen eta ebaluazioaren arloan, barne-araudiak eta Europar Batasunak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezartzen dituzten betebeharrak betetzea, nahitaez betetzekoak direnean.

f) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala erabat betetzen direla bermatzea, horiek betetzeko eta ezartzeko mekanismoak eta zuzenketa-neurriak aurreikutsita.

g) Jasotako dirulaguntza aplikatzean iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazkak saihesteko neurriak aplikatzea.

h) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko betebeharrak: dokumentu, publizitate, irudi eta material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabili behar da, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu behar dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu behar dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna sustatzen dutenak.

i) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diseinatzeko eta gauzatzen dituen ebaluazio-jarduerak edo -planak garatzen lagundu beharko dute entitate onuradunek.

11. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu berbererako beste administrazio edo entitate publiko zein pribatuetatik jasotako beste dirulaguntza, laguntza,

diru-sarrera edo baliabideekin. Edonola ere, argi identifikatuta geratu beharko da gastuen trazaraitatea, eta laguntzen eta dirulaguntzen batura ezin izango da izan diruz lagundutako gastuen kostua baino handiagoa.

Hala ere, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateraezinak dira Europar Batasunaren funtsekin finantzatutako beste laguntza batzuekin, gastu berberak finantzatzeko badira.

12. artikulua.– Identifikazioa eta publizitatea.

Deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduketak eta jarduketa horiek direla-eta egiten den publizitate guztia behar bezala identifikatuta egon beharko dira, Estatuko araudiak eta Europar Batasunak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezartzen dituzten informazioaren, komunikazioaren eta publikotasunaren arloko betebeharrekin bat etorrita.

Illo horretan, dirulaguntza hauek jasotzen dituzten pertsonak eta entitateek finantzaketa horren jatorriaren berri eman beharko dute jarduketan publizitatean, eta ikusteko moduan egiten dela bermatu beharko dute. Hala dagokionean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren logoaren identifikazio grafikoaz gainera, Europar Batasunaren ikurra eta finantzaketa-adierazpen egoki bat txertatuko dute, non hau adierazi behar baita: «Europar Batasunak - NextGenerationEUK finantzatuta». Helbide honetan eskuratu ahal dira elementu horiek: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual>. Bereziki agerikoa izan beharko da ekintzak eta emaitzak sustatzen direnean, eta informazio koherentea eta eraginkorra eman beharko da, hartzaile ugarirentzako, komunikabideak eta herritarrek barne direla.

13. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

1.– Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eusten bazaie, eta horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak betetzen badira.

2.– Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedura hasiko da.

14. artikulua.– Lehiari buruzko EBko araudia.

1.– Deialdi honetan adierazitako laguntzak «minimis» laguntzak dira, eta Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete behar dute (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko Erregelamendua). Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakarrari «minimis» laguntzetan emandako guztirako zenbatekoa ezin izango da 200.000 euro baino gehiago izan hiru ekitaldi fiskalen barruan.

2.– Kasuko ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitorpena egin beharko du pertsona edo entitate eskatzaileak, zehaztu behar baita minimis laguntza berriak ez duela gainditzen Erregelamenduan ezarritako muga maximoa.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

Pertsona edo enpresa onuradunek ez badituzte betetzen deialdian oro har ezarri zaizkien betebeharrak (Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikulua), edo deialdi honetan berariaz ezarri zaizkienak, edo azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun

Nagusiaaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan adierazitako dirulaguntza itzultzeko kasuren batean sartzen badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendari nagusiak ordaintzeke dagoen dirua jasotzeko eskubidea galdu dela erabakiko du, dagokion ebazpenaren bidez, eta Euskadiko Ogasun Nagusiari jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze-interesak itzuli behar zaizkiola xedatu ere, bidezkoak diren bestelako ekintzak eragotzi gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedurari jarraikiz (698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu zen eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezarri ziren).

Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta aipatutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 64. artikuluan aurreikusitako erantzukizun-araubidea jarraituko da.

Era berean, jasotako funtsak itzultzeko betebeharra sortuko du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) ezarritako printzipioak eta betebeharrak ez betetzeak, bai eta aplikatzekoa den Europar Batasuneko gainerako araudian ezarritakoak ez betetzeak ere, eta, bereziki, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa ez betetzeak.

16. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako ez-betetzereen bat gertatzen baldin bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak entitate interesdunari jakinaraziko dio itzultzeko prozedura hasi dela, eta zergatik hasi den, eta 15 eguneko epea emango dio egokitatzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

2.– Alegazioak jasotakoan, edo, horrelakorik aurkeztu ez bada ere, epea igarotakoan, prozedura amaituko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpen baten bidez. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

3.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak ez-betetzereen bat izan dela adierazten baldin badu, bertan deklaratuko da dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela, eta ezarriko da, hala badagokio, dagozkion zenbatekoak EAEko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra; itzultzeko epea bi hilekoa izango da ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Borondatezko alditzat joko da epe hori.

4.– Borondatezko aldi horretan dirulaguntza itzultzen ez bada, dirulaguntza premiamendu-bidetik berreskuratzeko izapideak hasiko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamenduan ezarritakoaren arabera zorraren konpentsazioa aplikatu behar denean izan ezik.

17. artikulua.– Datuen babesari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi xedapen hauen arabera jokatu du: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortutako datu pertsonalak «Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide da, eta haren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra pertsegitzea eta datuak estatistiketarako erabiltzea ere. Lortzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri emandako botere publikoak gauzatzeko eta

lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta tratamenduaren aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio gehiago dago hemen: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-es.shtml>

18. artikulua.— Aplikatu beharreko araudia.

Deialdi honetan jasotzen diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkie dirulaguntzei buruzko araudi orokorra ezartzen duten arau hauek: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen); azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, zeinak arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak.

Halaber, laguntzen programa honi hauek ere aplikatuko zaizkio: 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira presazko neurriak Administrazio Publikoa Modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzeko; HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen baita; TES/897/2021 Agindua, abuztuaren 19koa, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako zenbait kreditu banatzen baitira lurraldean, 2021eko ekitaldi ekonomikorako, autonomia-erkidegoak kudea ditzaten; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua («Finantza Erregelamendua»).

2021eko abenduaren 31, ostirala



I. ERANSKINA

(EB) 2020/852 ERREGELAMENDUAREN 17. ARTIKULUARI DAGOKIONEZ, INGURUMENEO SEI HELBURUEI «KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO» PRINTZIPIOA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Jarduketaren identifikazioa	«Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailatza eta mikroenpresak», Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan.
Jarduerari dagokion STEPeko osagaia	23. osagaia: lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak .
Jarduerari dagokion STEPeko osagaiaren neurria (erreforma edo inbertsioa). Hala badagokio, azpineurria adierazi behar da	C23.I4: berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak.
STEPeko neurriari (erreforma edo inbertsioa) edo, hala badagokio, azpineurriari esleitutako etiketatze klimatikoa eta ingurumenekoa (VI. eranskina, 2021/241 Erregelamendua)	047 etiketak - Ingurumenarekiko errespetuzkoak diren ekoizpen-prozesuetarako eta ETE-ek baliabideak efizientziaz erabiltzeko prozesuetarako laguntzak (% 40). Ehuneko berdea: % 25

Izen-abizenak	
IFZ	
Bere izenean edo entitate honen ordezkari gisa	
IFZ	
Honako zeregin hau betez:	
Harremanetarako datuak (helbidea:; telefonoa:.....; e-maila:.....)	

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Goian adierazitako jarduketa dela-eta, eskabidea aurkeztu duela proiektu honetarako:



eta proiektu horrek baldintza hauek betetzen dituela:

A.— Ingurumenari dagokionez jasangarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») baten bidez, inbertsio jasangarriak ahalbidetzeko esparru baten ezarpenari buruzko (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, proiektuan garatutako jarduerak ez diote kalte esanguratsurik eragiten ingurumeneko helburu hauei:

- 1.— **Klima-aldaketa arintzea.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio klima-aldaketa arintzeko helburuari, berotegi-efektuko gasen (BEG) isuri handiak eragiten baditu.
- 2.— **Egokitzapena klima-aldaketara.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio klima-aldaketara moldatzeko helburuari, oraingo baldintza klimatikoen eta etorkizunerako aurrez ikusitakoen ondorio txarrak areagotzen baditu, bai jarduerari dagokionez, bai pertsonen, naturari edo aktiboen dagokienez.
- 3.— **Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten die baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera eta babes jasangarriei, kaltea eragiten badie ur-masen —azaleko urak eta lur azpikoak— egoera onari edo potentzial ekologiko onari eta itsas uren egoera ekologiko onari.
- 4.— **Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio ekonomia zirkularri —hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne— kasu hauetan: eraginkortasunik eza ugari eragiten baditu materialen erabileran edo baliabide naturalen zuzeneko edo zeharkako erabileran; hondakinen sorrera, errausketa edo ezabaketa modu nabarmenean areagotzen baditu, edo hondakinen epe luzerako ezabaketak kalte esanguratsua eta epe luzerakoa eragiten badio ingurumenari.
- 5.— **Atmosferaren, uraren edo lurzoruen kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten die kutsaduraren prebentzioari eta kontrolari, nabarmen areagotzen badiu atmosferara, uretara edo lurzorura isuritako kutsatzaileen kopurua.
- 6.— **Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio biodibertsitatearen eta ekosistemen babesari eta leheneratzeari, kalte egiten badie ekosistemen baldintza onei eta erresilientziari edo kalte egiten badio habitat eta espezieen kontserbazio-egoerari, bereziki Batasunak interesekotzat jotakoen kontserbazio-egoerari.

B.— Garatutako jarduerak ez daude baztertua planaren finantzaketatik, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioari buruzko gida teknikoarekin bat etorrira, hauek direla bide: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko (2021/C 58/01)32 Erregelamendua, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren exekuzio-erabakiaren proposamena eta dagokion eranskina:

- 1.— Petrolio gordinaren findegien eraikuntza, ikatza erabiltzen duten zentral termikoak eta petrolio edo gas naturala erauztea dakarten proiektuak, kalte egiten baitiote klima-aldaketa arintzeko helburuari.
- 2.— Erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, erregai horien geroko erabilera barne, salbu eta, elektrizitatea eta/edo beroa sortzeko, gas naturala erabiltzen duten proiektuak eta garraio-azpiegiturarekin eta lotutako banaketarekin zerikusia dutenak, Europako Batzordearen Gida Teknikoaren III. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
- 3.— Emisio-eskubideen salerosketa-araubidearen (RCDE) esparruko jarduerak eta aktiboak, aurreikuspenen arabera, eragingo dituzten berotegi-efektuko gasen isuriak erreferentziako parametroen azpitik egongo ez badira. Diruz lagundutako jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasen isuriak erreferentziako parametroak baino nabarmen txikiagoak izango ez direla aurreikusten bada, inguruabar horren azalpen arrazoitua eman beharko da.
- 4.— RCDEren zeharkako kostuen konpentsazioa.
- 5.— Hondakinen zabortegekin eta erraustegiekin lotutako jarduerak. Salbuespen hau ez zaie ezartzen birziklagarriak ez diren hondakin arriskutsuen tratamendua baino egiten ez duten instalazioetan eta aurretiaz dauden instalazioetan egiten diren ekintzei, haien helburua bada energia-efizientzia areagotzea, ihes-gasak harrapatzea biltegitara edo erabiltzeko, edo errausketaren errautsetako materialak berreskuratzea, betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

6.– Tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioekin lotutako jarduerak. Salbuespen hau ez zaie ezartzen birziklagarriak aurretiaz dauden tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioetan egiten diren ekintzei, haien helburua bada instalazioen energia-efizientzia areagotzea edo hondakin bereziak birziklatzeko eragiketetarako berregokitzea (adibidez, konpostatzeko eta biohondakinen digestio anaerobiorako), betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.

7.– Jarduerak zeinetan hondakinen epe luzerako ezabaketak kaltea eragin baitiezaioke ingurumenari.

C.– Garatutako jarduerak ez daukate zuzeneko ondorio ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primarioak ere haien bizi-ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero, agertu ahal direnak.

Adierazpen honetan ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak eta dagozkien berandutze-interesak.

.....(e)n,(e)koaren (e)(a)n.

Sinadura

2021eko abenduaren 31, ostirala



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

II. ERANSKINA

KONTROL-ESKUMENAK BERMATZEKO, ESKUBIDEAK ETA SARBIDEAK EMATEKO
KONPROMISOA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
..... entitateko (IFZ:; zerga-egoitza:
.....) ordezkaria da (zeregin
hauek betetzen ditu:) eta, STEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den
heinean, «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23.
osagaien definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketan garapenean, adierazten du
ordezkatzeko duen entitateak konpromisoa hartzen duela eskubideak eta sarbideak emateko, Batzordeak,
Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta
estatuko agintari eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako
Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e)
artikuluaren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2015/1046
Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:



2021eko abenduaren 31, ostirala



III. ERANSKINA

DATUEN LAGAPENARI ETA TRATAMENDUARI BURUZKO ADIERAZPENA, SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN (STEP) BARRUKO JARDUKETAK EGITEARI DAGOKIONEZ

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
 entitateko (IFZ:; zerga-
 egoitza:) ordezkarria da
 (zeregin hauek betetzen ditu:), eta, STEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23. osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketak garapenean, adierazten du ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, eta, bereziki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluen apartatu hauek:

1.– 2. apartatuaren d) letra: «Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera bideratutako neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola egiteko, datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu elektronikoan, eta datu-base bakarrean:

i) Funtzen azken hartzailearen izena;

ii) Kontratistaren eta azpikontratistaren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailerak bada Batasuneko edo estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorrira;

iii) Funtsen hartzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluen 6. puntuan definitutakoaren arabera (26);

iv) Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera bideratutako neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera. Mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa zehaztu behar da».

2.– 3. apartatua: «Artikulu honen 2. apartatuaren d) letran aipatutako datu pertsonalak Batasuneko estatuak eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketa onartzeko auditoriaren eta 15. artikuluen 2. apartatuan eta 23. artikuluen 1. apartatuan aipatutako akordioaren aplikazioarekin lotutako funtsen erabilerarekin zerikusia duten kontrol-prozeduren ondorioetarako, eta auditoriak edo prozedurek dirauten denboran. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren barruan, EBFTren 319. artikuluekin bat etorrira, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan jasotako finantzei eta kontu-emateari buruzko informazio integratuaren esparruan, eta, zehazki, berezita, kudeaketari eta etekinari buruzko urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoa dela bide, adierazten du baimena ematen duela datuak lagatzeko eta tratatzeko, aipatutako artikuluetan berariaz jasotako xedeetarako.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:





IV. ERANSKINA

SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN (STEP) EZARRITAKO ZEHARKAKO PRINTZPIOAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
 entitateko (IFZ:
; zerga-egoitza:
) ordezkaria da (zeregin
 hauek betetzen ditu:), eta, STEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den
 heinean, «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23.
 osagaien definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketaren garapenean, adierazten du
 ordezkatzeko duen entitateak konpromisoa hartu duela estandar zorrotzenak aintzat hartzeko arau juridikoak,
 etikoak eta moralak betetzeari dagokionez. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu iruzurra,
 ustelkeria eta interes-gatazka prebenitu eta detektatzeko eta, ez-betetzerik hautemanenez gero, haien berri
 emango die agintari eskudunei.

Osagarri gisa, STEPen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren
 printzipioa errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko («do no significant
 harm» printzipioaren ingelesezko siglak: «DNSH»), plan horren barruan egiten diren jarduketetan. Halaber,
 adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik eta, duen informazioaren arabera, ez dagoela bateraezintasun-
 arriskurik Estatuko laguntza-araubidea dela eta.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:

